

UPV/EHUko Irakasle-ikertzaileen

prekarizazio eta diskriminazioari

EZ!



erman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

7 ALDARRIKAPEN

LAB

Zergatik kanpaina hau eta nori zuzendua dago?

UPV/EHUn irakasten eta ikertzen dugun langile askoren lan baldintzak prekarietate bezala ezaugarri ditzakegu. Era berean, aldi baterako irakasleak izanda, diskriminazio egoerak pairatzen ditugu, osagarri batzuk eskatzeko ukazioa, kasu.

LABetik EHUKo zuzendaritza taldeari prekarizazio eta diskriminazio egoera hauek behin eta berriro salatu eta beraiekin bukatzeko proposamenak egin arren, endemiko bihurtu dira. Urteetan zehar EHUKo langileen defentsan egindako lanak, gure eskubidetan atzerapenak ez egiteko ezinbestekoa izateaz gain, lorpen nabari batzuk izan ditu. Hala eta guztiz ere, EHUKo Zuzendaritza taldearen jarrera itxiarekin topatzen gara eta gatazkak judicializatzeko praktika orokortua da.

Iniziatiba hartzeko eta mugitzeko unea heldu delakoan gaude. Garaia da dagokiguna exijitzeko! Horregatik mobilizazio-kanpaina hau, momentu honetan gakoak diren zazpi eskaera zehatz eginez kaltetutako hiru kolektibo ezberdinen aldarrikapenak batuz.



Denok batera, UPV/EHUKo prekarizazio eta diskriminazioaren kontra!

LANALDI PARTZIALDUN IRAKASLEAK



Gaur egun, UPV/EHUn klaseak ematen diharduten 4.285 irakasletatik % 22,3k lanaldi partzialeko kontratua du. Irakasle hauei bakarrik klase eta tutoretza orduak ordaintzen zaizkie. Ezinbestez burutzen dituzten gainontzeko ekintzak (klaseen prestaketa, kudeaketa eta formazioa) ez zaizkie aitortzen, ezta kasu askotan egiten den ikerketa. Ondorioz, haien soldatak oso baxuak dira, hilabeteko 395 eta 788 euroren artekoak. Honi prekaritate latza baino ezin zaio deitu.

1 SOLDATA DUINA



Soldataren igoera, egiten diren jarduera guztiak (klaseak prestatzea, kudeaketa, formazioa...) aitortuz. Horretarako EHUko Gobernu taldeak lanaldi partzialeko irudien soldatak arautzen dituen 41/2008 dekretua aldatzeko kudeaketak egin behar du Eusko Jaurlaritzaren aurrean.

2 MERITUEN ORDAINKETA



Bosturtekoen aitortza eta ordainketa, gaur egun lanaldi partzialeko kontratuekin ezin baita eskakizuna burutu.

3 KONTRATU PARTZIALEN KOPURUA MURRIZTEA



Lanaldi partzialeko kontratu kopurua murriztea, behar beharrezkoak soilik utziz, lanaldi osoko kontratuak lehenetsiz.

4 ELKARTU FALTSURIK EZ!



Elkartu plazetarako unibertsitatetik kanpoko profesionalak kontratatu behar dira, adituak diren irakasgai zehatzak emateko. Ez dira bete behar ordezkapen poltsetatik. Profesional bat ez topatzekotan, ordezkapen poltsetatik gehienez ikasturtea bukatu arte beteko zen. Profesionalik topatu gabe jarraitzekotan plaza hori amortizatu eta atxiki plaza bat sortu.

ALDI BATERAKO IKERTZAILEAK



EHUn 1.334 ikertzaile kontratu daude, eta horietatik 646 doktoregoa burutzen ari diren pertsonak dira. EHUrako zein euskal jendarte osorako etorkizuneko ikertzaileak badira ere beren soldata prekarioa da, eta ez dator bat garatzen duten lanak exijitzen duen kualifikazioarekin. Doktorego aurreko ikertzaileen lehen bi urteetako soldata gordina 1.067 eurokoa da. Doktoretza osteko ikertzaileen kolektiboan ia 200 langile daude eta beraien soldatak artean alde handiak daude. Ikerkuntza karrera oztopoz eta prekarietatez beteta dago, egonkortasuna ametsa dela.

5 SOLDATA DUINA



Soldata duinak bai doktorego aurreko ikertzaileentzako zein doktorego osteko ikertzaileentzako inolako salbuespenik gabe.

6 IBILBIDEA DEFINITU



Ikertzaile ibilbidea behingoz definitzea eta 13 akreditazioa duten ikertzaile guztiei doktore kontratatu lanpostu iraunkorrera lehiazteko aukera irekitzea.

ALDI BATERAKO IRAKASLEAK GUZTIAK



Seiurtekoak lortzeko ikerketa meritu nahikorik izan arren, irakasle atxiki eta bitarteko irakasle gehienei ukatzen zaie aukera hau, ANECAk berak aukera ematen duen arren. Langileen arteko erabateko diskriminazioa da hau.

7 IKERKETA MERITUAK



Seiurtekoen eskaera bideratzea eta, aitortuta izatekotan, ordaintzea. EHUko zuzendaritzak dagokion kudeaketa egin behar du Unibasq eta Eusko Jaurlaritzarekin ANECAk irekitako abagunea aprobetxatzeko eta bere irakasle-ikertzaileei dagokiena aitortzeko eta ordaintzeko (helburua etorkizunean hemen bertan ebaluatuak izatea bada ere).



LAB UPV/EHU Sail Sindikala

www.labehu.eus

Donostia: Barriola Eraikina
Tel. 943 018 435 | 943 018 469
e-maila: lab.donostia@ehu.eus

Gasteiz: Elurreta Eraikina
Tel. 945 014 374
e-maila: lab.gasteiz@ehu.eus

Leioa: Liburutegi Nagusia
Tel. 946 012 436 | 946 015 288
e-maila: lab.leioa@ehu.eus